

**H** LH3



Izen-deiturak \_\_\_\_\_

Ikastetxea \_\_\_\_\_

Lehen maila \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_

Data \_\_\_\_\_

# Zuzenketarako koadernoak



45 minutu dituzu proba hau egiteko

***Gaitasuna ekoizpen idatzian***

***LHko 3. maila***

**2015-2016**

# Idazmena zuzentzeko irizpideak

Lehenik, lana zuzentzen denean puntuazioak ematen dira alderdi hauetan:

- Aurkezpena eta ortografia
- Istorioaren koherentzia
- Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Alderdi bakoitzari 1etik 4rako puntuazioa emanen zaio, ondoren adierazten diren irizpideen arabera:

## Lehen Hezkuntzako 3. maila

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso desegokia 3. ikasmalarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografikoak asko dira.	1. eta 3. puntuazioen arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako hiru betetzen ditu.	Kurtsu honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Garbi idatzita dago (ez da urraturik...)</li> <li>• Letra argia eta erregularra da.</li> <li>• Marjinak ongi zehazturik daude.</li> <li>• Ortografia: 4-7 akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s idazterakoan egindako 5 akatseko 1 kontaktzen da), testu laburrak direnean (10-15 lerro). 8-10 akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</li> </ul>	Bikaintasuna erakusten du, 3. ikasturtean eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu.
Istorioaren koherentzia	Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, justifikatu gabeko jauziak daude.	3. puntuazioko eskakizunetako lau betetzen ditu.	Eskakizun hauetatik, 5-6 bete ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egitura argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera.</li> <li>• Hiru paragrafo ditu, gutxienez.</li> <li>• Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman; istorioa erraz segitzen da.</li> <li>• Perpausak ideia osoak adierazten dituzte.</li> <li>• Perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa).</li> <li>• Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (badaki zeinek zer egiten duen).</li> </ul>	3. puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (orduan; geroago; hala ere, etab.); ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa).
Zuzentasun gramatikala	Testua ez da egituratu perpaus argiro zehaztu eta bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du. Akats gramatikal asko egin ditu.	3. puntuazioko eskakizunetako hiruzpalau bete ditu.	Eskakizun hauetatik, 5-6 bete ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituratutako idazkia.</li> <li>• Aditz-denborak zuzen erabili ditu.</li> <li>• Ez du komunztadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabideak...)</li> <li>• Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> <li>• Argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza.</li> <li>• Pertsonai eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu.</li> </ul>	3. puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkian ez da akats gramatikalik, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 3. mailan gaudela.

Oharra: "0" puntuazioa soilik eman da ikasleak ez badu lana egin.